



abaildu ‘ kemenik gabe galditu ‘	«Baina itxoin beharra zegoen arratsaldean abaildu eta gaua etorri arte.»	(81)
abaranta ‘ oldarra, abiada ‘	«Iduri izan zuen gorpila handi bat (...) libratu egin zela eta jiraka hasi, eta gero eta abaranta haundiagoan.»	(97)
abistu ‘ airea jaurtikiz eginiko soinua ‘	«Eta abistu luze eta fin bat egin zuen. Oso trebea zen andre hura abistu egiten...»	(77)
ailobre ‘ abereen landare mota (<i>alholva</i>)	«...esate baterako aurrez aurre ailobre belar tontor bat jarri eta “hau ailobrea duk” esaten didatenean...»	(14)
alpapa ‘ abereen. landare mota (<i>alfalfa</i>)	«Mo, zatoz mesedez alpapa hau probatzera...»	(65)
antoisín ‘ ura hartzeko ontzi	«...fuerteegi itxitako ate baten kolpearekin edo lurrera eroritako antoisina baten kinketakoarekin.»	(81)
arba ‘ abar xehea, arbazta ‘	«—Altxa denok! Altxa denok!— zioen Bizkar Okerrek gu arba batekin zirikatu.»	(71)
aukeran ‘ egiazki, benetan ‘	«Zure laguna behi atsegina eta bizkorra da dudarik gabe, baina heldu gabea ere bai aukeran .»	(107)
belaze ‘ belartza, belardia ‘	«Ikulitik atariko belazeetara eta atariko belazeetatik ikuilura, horixe zen nire ibilbide guztia...»	(66)
berealditako ‘ berebizikoa, egundokoa ‘	«—Hortik aurreraxeago berealditako pendiza dago, eta pendizaren behelaldean etxerako bidea...»	(26)
betizu ‘ basatia, hezgaizta ‘	«—Zeharo betizuak dituk. Berealditako jokoa emango dizuete. Zezenek beraiek ez bezalakoa...»	(140)
bidatzur ‘ mendi-landetako bide meharra ‘	«Balantzegiko etxe zuri hartarantz jo genuen basoko bidatzur batetik...»	(61)
desenkusatu ‘ barkamena eskatu ‘	«—Laguna, desenkusatu egin behar duzu nirekin.»	(19)
diosala ‘ agurra ‘	«...ez nien diosalarik ukatuko, noski, baina bai gainerako guztia.»	(88)
eihera ‘ errota ‘	«Zazpi eihera badituz erreka batean, / Zortzigarrena aldiz etxe saihetsean...»	(171)
eki ‘ eguzkia ‘	«—Zein diren pollit pertz eta marmitak ekiaren pean (...) Zein den bizi haren distira.»	(143)
erasan ‘ eragin, ondorioa izan ‘	«Beste aldera, ordea, La Vacherekin edukitako harremana erasana zegoen...»	(88)
erauntsi ‘ euri zaparrada bortitza ‘	«...zuhaitz adar ttikiak noiz erori zain ibiltzea, baina (...) haizea edo erauntsia zenean mordo bat erortzen ziren batera...»	(92)
errari ‘ toki batetik bestera dabilena ‘	«Beharbada horregatik izan ginen zorionsu, behi errariak izan ginelako.»	(157)
erretena ‘ ubidea, urarentzako bidea ‘	«...haraneko erreka koxkorrek berak indartsu egiten zuen bere bidea (...) ez, orduantxe arte bezala, erretenaren tankera guztiarekin.»	(118)
errita ‘ haserrealdia ‘	«Eta eskerrak horri, gauza asko jakin dituz Eztenasen errita saioak entzunez.»	(113)
ezpa(ra) ‘ intsektu ziztatzailea ‘	«Ordea, herritar asko ziren, mila eta gehiago ziren, eta ezpak bezala inguratzen ziren guregana, etengabe, zikin, mingarri.»	(147)
fastikagarri ‘ desatsegina, gozakaitza ‘	«Egoera hain fastikagarrian ez aurkitzera, agian zerbait bururatuko zitzaidekeen.»	(22)
ganbela ‘ abereen jan-edanetarako ontzia ‘	«Zera gertatzen da, ez zaidala batere gustatzen gaur ganbelan jarri didaten pentsua.»	(99)



goroldio ‘ landare txiki eta apala (<i>musgo</i>)	«Biok goroldio erdi jelatuaren gainean etzanda geunden...»	(105)
haboro ‘ gehiago’	«Bixtan düzü zer egin behar düzün. Ez izkriba haboro! »	(179)
harlausa ‘ harri landu zapala’	«...erabat hartua neukan burua, harlausa batek galerazi egiten zidan pentsatzea.»	(91)
hazkurri ‘ elikadura, janaria’	«...eta zer gertatu zen ordüan? Bada beleak ogi osoa ekarri ziala: nola bi baitziren, hazkürri doblea.»	(143)
hizpide ‘ hitz egiteko aukera’	«Alferrik emango zidaten hizpidea , alferrik eskainiko belar goxorik eta etzateko toki onik. »	(88)
ilunbista ‘ egun argitzea, egunsentia’	«Baina gero, ilunbistarekin , kanpora atera eta eroarena egiten hasi ziren.»	(75)
indarge ‘ indar gutxiarekin, makal’	«... La Vacheren aldaketak indarge utzi berria ninduelako.»	(162)
juzku ‘ epaia, iritzia’	«Nire aldetik, juzku txarra eginda nengoen ordurako.»	(74)
kinketako ‘ hots sikua, metalikoa’	«Ez da arma kinketakorik sentitzen, ezta zakuren bat zalditik erortzen denean ere.»	(97)
laineza hartu ‘ harrokeriaz bete’	«Harrotuta bizi nintzen, laineza hartuta... »	(70)
langa ‘ esparruak ixteko haga’	«...bixkietako batek Balantzategiko langa ireki zuen.»	(136)
lanturu ‘ negarra’	«Gero eta urduriago, lanturuak heldu ziren laster.»	(135)
litxarkeria ‘ lapurreta txikia’	«Zenbat kostatzen ote da pentsu zaku bat? Litxarkeria iruditzen zait.»	(80)
lotxusta ‘ lokuluxka, lotaldi laburra’	«...eta ahoa zabaldu eta lotxusta egitera nindoala adierazi nahi izan nion lagunari...»	(129)
marru ‘ hainbat abereren oihua’	« Marru egin nuen, ea behi adiskideren batek erantzun eta etxerako bidearen ideia ematen zidan...»	(18)
mexata ‘ zitala, gaiztoa’	«Eta egün batez, nazione hartako enperadore mexatak preso hartü eta hunat zer erraiten deion Eutropiori...»	(144)
moztaka ‘ txaparroa, txikia eta sendoa’	«...neska polit eta moztaka bat, oso segari onaren itxura zeukana.»	(172)
nozitu ‘ pairatu, jasan’	«Desertuan aurrera, gero eta bakartiago, gero eta aspertuago, lehenengo erorialdiak nozitu nituen...»	(91)
orbel ‘ hosto eihartua’	«Basoan nengoen beste behiekin bertako orbel biguinaren gainean etzanda...»	(71)
osterantzean ‘ bestela, ezpabere’	«Ahal dela gauza naturala jan behar da, osterantzean hondatu egin baitaiteke gure estamaguetako bat.»	(80)
pendiz ‘ malda, aldatsa’	«—Hortik aurreraxeago berealditako pendiza dago, eta pendizaren behekaldean etxerako bidea...»	(26)
pitzatu ‘ arrakalatu, urratu’	«Eta, hain zuzen ere, andre haren bihotzak pitzatua zirudien senarra eta beste bi lagunen afusilamentu hartaz geroz.»	(68)
prefosta ‘ jakina, noski’	«—Bai, prefosta . Baina baithako hori plantako bada, ontsa izkribatzeko galtatüren deitzü.»	(179)
saietera ‘ leiho estu eta luzea’	«Nahiz ikuiluan aurrez aurre neukan saieteratik ezer zehatzik ikusteko modurik izan ez...»	(81)



sastraka ‘ sasitza nahasia ‘	«Gustora pasatuko nituzke egun batzuk hango sastrakan .»	(154)
setatsu ‘ tematsua ‘	«—Ondo setatsua zara, behintzat!—haserretu nintzen azkenean—. Zorria bera baino setatsuagoa!»	(16)
soildu ‘ mehaztu, urritu ‘	« Soildu egiten dituela basoak, eta errazago ikusten dela zein mundutan bizi garen.»	(105)
somete ‘ seguraski ‘	«— Somete , mundu honetan ez dago behi makala baino gauza makalagorik...»	(135)
teinkatu ‘ tinko jarri, arteztu ‘	«Atzeak eta aurreak teinkatuz , laukoan korrika hasteko zorian jarri nintzen.»	(24)
tematsu ‘ setatsua ‘	« Tematsu jarri izatera, ezten hura sartuko zion bihotzean.»	(127)
temoso ‘ tematia, setatia ‘	«Setatsua hitzegiterakoan zakar aritzeko joera daukat, batez ere temosoa delako eta bakerik ematen ez didalako.»	(152)
trostan ‘ galapan, zaldien ibilkera arina ‘	«...bagindoazen, bagindoazen biok martxa politean baso hartarantz, bagindoazen trostan .»	(157)
txapligu ‘ suziria, bolandera ‘	«—Hala esaten dute, holako txapliguak botatzen dituztenean festak izaten direla.»	(139)
txirrai ‘ ur jariora, ur jauzi txikia ‘	«...teilatutik etxe atarira erortzen zen uraren txirraia entzuten nuen.»	(122)
xuxurlatu ‘ ahots apalean esan ‘	«Aldian behin, ametsetan bezala orduan ere, erdi xuxurlatu egiten zituen hitzak...»	(106)
zankalatraba ‘ hankak alde banatan jarriak ‘	«Erori eta zankalatraba gelditu zitzaidan lepo inguruan.»	(172)
zelata egin ‘ ezkutuan zaintzen ihardun ‘	«Ez nintzen errotari zelata egitera joaten...»	(70)
zima ‘ izaera, jokaera ‘	« Zima horretakoa naiz ni: zerbait argi dagoenean (...) “bai” aitortzen dut, baina bestela (...) nahiago dut ez sinestea.»	(14)
zipitzik ere ‘ tutik ere, deus ere ‘	«Bada, barka ezazu, baina ez dizut zipitzik ere sinesten»	(14)
zipotz ‘ burugogorra ‘	«Nahiz eta normalean halako zipotza ez izan, une hartan urduri zegoen (...) bankete hura norentzat izango zen jakiteko irrikitan.»	(72)
zirrikitu ‘ bitartea, irekidura ‘	«Begi zirrikituarekin harkaitzerantz begiratu nuen...»	(25)